



Dirulaguntza deialdia 2025: Eibarko Udalak, norgehiagoka araubidez, Eibarko emakumearen Mahaian parte hartzen duten elkarteentzat, Eibarren berdintasunaren aldeko programa zehatzak garatzeko dirulaguntzak ematekoa.

Aurrena: araudi erregulatzailea.

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak emateko araubidea hau da:

- a) Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzetarako lege orokorra.
- b) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- c) Dirulaguntzei buruzko Eibarko Udalaren Ordenantza Orokorra.
- d) Deialdi honetan dauden klausulak.

Bigarrena: dirulaguntzaren xedea.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 23.2 artikulua ezarritakoaren arabera, udal honek Eibarko Emakumearen Mahaian parte hartzen duten eta genero-berdintasuna sustatzen duten elkarteak dirulaguntzak emateko deia zabaltzen du, Eibarren berdintasun-programa espezifikoak garatzeko.

Hirugarrena: dirulaguntzen zenbatekoa eta aurrekontu-kredituak.

Dirulaguntza hauek emateko, udal aurrekontuaren zenbateko hau erabiliko da:

- Diruz lagundutako jarduera: berdintasunaren aldeko programa zehatzak garatzea.
- Kontu saila: 1.0500.481.01.231.50
- Zenbatekoa: 12.210 €.

Convocatoria 2025 de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva del Ayuntamiento de Eibar para las asociaciones que participan en la Mesa de la Mujer de Eibar, para el desarrollo de programas específicos de igualdad en Eibar.

Primero: normativa reguladora.

La concesión de las subvenciones objeto de esta convocatoria se regula por:

- a) La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (LGS).
- b) El Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.
- c) La Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar.
- d) Las cláusulas contenidas en la presente convocatoria.

Segundo: objeto de la subvención.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 23.2 de la LGS, este Ayuntamiento procede a realizar la convocatoria para la concesión de subvenciones dirigidas a asociaciones que participan en la Mesa de la Mujer de Eibar y que desarrollan su actividad en la promoción de la Igualdad de género, para el desarrollo de programas específicos de igualdad en Eibar.

Tercero: créditos presupuestarios y cuantía de las subvenciones.

Se destinará a la concesión de estas subvenciones la siguiente cantidad del presupuesto de la Corporación:

- Actividad subvencionada: desarrollo de programas específicos de igualdad.
- Partida: 1.0500.481.01.231.50
- Importe: 12.210 €.



Laugarrena: diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz laguntzen den jardueraren izaerarekin bat datozenak, deialdian ezarritako epean egiten direnak eta jarduera hauetakoren bat egiten dutenak:

- Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaz jabetzeko eta horren inguruko prestakuntza eta informazioa emateko eta zabalkundea egiteko ekintza zehatzak.
- Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari buruzko materialak eta baliabide espezifikoak egitea.
- Elkartearen jardueraren xede diren kolektiboentzat esku hartzeko programa zehatzak garatzea.
- Pertsonal-gastuak:

Dirulaguntza honen esparru barruan garatutako jardueretan zuzenean parte hartu duten langileen gastuak baino ez dira diruz lagunduko.

Honakoak zehaztuko dira: jardueretan zuzenean parte hartuko duten langileak, garatu beharreko eginkizunak eta pertsona bakoitzaren gutxi gorabeherako dedikazioa.

Zuzeneko langileen gastua ezin izango da izan gauzatutako zenbateko osoaren % 20 baino handiagoa.

Inplikaturako pertsonen orduko kostuaren kalkulua, formula honen arabera egingo da:

Cuarto: gastos subvencionables.

Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que correspondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, se realicen en el plazo establecido en la convocatoria y se correspondan con la realización de alguna de las siguientes actividades:

- Acciones específicas de sensibilización, formación, información y divulgación de la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres.
- Elaboración de materiales y recursos específicos relacionados con la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.
- Desarrollo de programas específicos de intervención dirigidos a los colectivos objeto de la actividad asociativa.
- Gastos de personal:

Se subvencionarán exclusivamente los gastos del personal que haya participado directamente en las actividades desarrolladas en el marco de esta subvención.

Se especificará el personal que va a participar directamente en la ejecución de las actividades, las funciones a desarrollar, así como la dedicación estimada de cada persona.

El gasto del personal directo no podrá superar el 20% del importe total ejecutado.

El cálculo del coste/hora de las personas implicadas, se realizará en base a la siguiente fórmula:



Orduko kostea / Coste hora = (X + Y) / H

X = Langilearen urteko soldata gordina / Salario bruto anual de la persona empleada.

Y = Enpresak Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuota / Cuota de la empresa a la Seguridad Social.

Kotizazio-oinarria (RNT) * Entitateak langilearengatik Gizarte Segurantzari egindako ekarpenaren %)
Base cotización (RNT) * % de la aportación de la entidad a la Seguridad Social por la persona empleada.

H = Enpresaren urteko orduak, hitzarmenaren arabera / Horas anuales de la empresa, según convenio.

Dirulaguntza honetan aurreikusitako jarduerak garatzeko entitate onuradunarekin lotutako pertsonak/erakundeak kontratatzea aurreikusten bada, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 29.7.d artikuluan adierazten den bezala, aldeztu aurretik baimena eskatu beharko zaio Gizartekintza sailari.

Baimen-eskaera horretan, honako hauek zehaztuko dira: jarduerak gauzatzen parte hartuko duen entitate onuradunarekin lotutako langileak edo erakundeak lan horiek Eibarren egingo direla adierazita, garatu beharreko eginkizunak, eta horietako bakoitzarentzat aurreikusitako dedikazioa eta aurrekontua.

Boluntarioek egin badituzte lanak, aseguruaren kostua baino ez da ordainduko.

En caso de prever la contratación de personas/entidades ligadas a la entidad beneficiaria para el desarrollo de las actividades previstas en la presente subvención, se deberá solicitar, tal y como indica el artículo 29.7.d de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, la autorización previa al departamento de Servicios Sociales.

En dicha autorización se especificará el personal o las entidades vinculadas a la entidad beneficiaria que van a participar en la ejecución de las actividades con indicación de que el trabajo se ha llevado a cabo en Eibar, las funciones a desarrollar, así como la dedicación y el presupuesto estimados para cada uno.

Si los trabajos se llevan a cabo por personal voluntario sólo se abonará el coste del seguro.

Bosgarrena: dirulaguntza emateko araubidea.

Dirulaguntzak norgehiagokaren araubidez emango dira.

Seigarrena: dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak.

Zehazki, dirulaguntza hauek elkarrekin eska ditzakete, baldin eta Dirulaguntzen Lege Orokorren 13. artikulua ezarritako debeku horietako bat bera ere ez badute, diru-irabazi asmo bariko elkarteak badira, Eibarko udalerrian emakumeen eta

Quinto: régimen de concesión de la subvención.

La concesión se efectuará en régimen de concurrencia competitiva.

Sexto: requisitos para solicitar la subvención.

En concreto, podrán acceder a estas subvenciones, siempre que no incurran en ninguna de las prohibiciones que se establece en el artículo 13 de la LGS, las asociaciones sin fines de lucro que acrediten el desarrollo y/o atención de



gizonez arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak garatzen eta/edo laguntzen dituztela frogatzen badute eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Eibarko Emakumearen Mahaian parte hartzen duen elkarte izatea.
- Berdintasunerako Udal Unitateak eta/edo Andretxeak bultzatzen dituzten jardueretan laguntzea eta/edo parte hartzea.

Zazpigarrena: prozedura bideratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak eta jakinarazpenerako edo argitara emateko baliabideak.

Prozeduraren edo jardunbidearen instrukzioa Eibarko Udaleko Gizartekintza Saileko, Berdintasun Zerbitzuko teknikari batek eramango du.

Balorazio Batzordea Berdintasunerako Batzorde Aholkulariko kideek osatuko dute.

Dirulaguntzaren ebazpena ematea Eibarko Udaleko Alkateari dagokio.

Onuradunek 15 egun naturaleko epea izango dute dirulaguntzari uko egiteko; epe hori ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunean hasiko da. Onuradunek dirulaguntza onartu egin dutela ulertuko da adierazitako epe horretan esanbidez edo berariaz uko egin ez badiote.

Zortzigarrena: ebazpena emateko eta jakinarazpena egiteko epeak.

Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Deialdiaren ebazpena Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan (BDNS) argitaratuko da

actividades de promoción de la igualdad de mujeres y hombres en el municipio de Eibar y que cumplan los siguientes requisitos:

- Que sea una asociación que participa en la Mesa de la Mujer de Eibar.
- Que colabore y/o participe en las actividades promovidas por el Área de Igualdad Municipal y/o Andretxea.

Séptimo: órganos competentes para la instrucción y resolución del procedimiento y medios de notificación o publicación.

La instrucción del procedimiento se desarrollará por un/a técnico/a del Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Eibar, Servicio de Igualdad.

La Comisión de Valoración estará compuesta por los y las miembros de la Comisión Asesora de Igualdad.

La resolución de la concesión competirá al Alcalde del Ayuntamiento de Eibar.

Los/as beneficiarios/as dispondrán de un plazo de 15 días naturales para renunciar a la subvención, contados a partir del día siguiente de la notificación de la resolución. Se entenderá aceptada la subvención por parte de los/as beneficiarios/as si en el plazo anteriormente indicado no han manifestado expresamente su renuncia.

Octavo: plazo de resolución y notificación.

El plazo máximo para la resolución y su notificación será de seis meses desde el día siguiente a la publicación del correspondiente extracto de la convocatoria en el BOG. La resolución de la convocatoria será publicada en la Base de Datos Nacional de Subvenciones



eta horren jakinarazpena elektronikoki egingo da.

Bederatzigarrena: eskaerak non eta noiz aurkeztu.

Dirulaguntza **eskaerak elektronikoki** egingo dira www.eibar.eus udal webgunearen bidez.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskabidea aurkezteko epea **2025eko irailaren 29an hasi eta 2025eko urriaren 29an bukatuko da**. Eskabidea deialdia egin duen organoari zuzenduko zaio, onuradunak edo horren izenean diharduenak izenpetuta eta dagokion dokumentazioa atxikita. Azken eguna baliogabea izango balitz (larunbata, igandea edo jaieguna), hurrengo lehenengo egun balioduneraino luzatuko litzateke.

Hamargarrena: eskaerarekin batera ekarri behar diren dokumentuak eta argibideak.

Dirulaguntza hau tramitatzeko, aplikagarri den araudi erregulatzailerak eskatzen dituen hainbat datu eta dokumentu behar dira, interesdunek aurkeztu behar dituztenak.

Hala ere, interesdunek honako hauek ez aurkezteko eskubidea dute (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikulua):

- Eibarko Udalaren esku dauden datuak edo dokumentuak.
- Beste edozein administrazio egindako dokumentuak.
- Dokumentu originalak (salbu eta, salbuespen gisa, aplikagarria den araudiak kontrakoa ezartzen badu).

(BDNS) y será notificada electrónicamente.

Noveno: plazo y lugar de presentación de solicitudes.

Las **solicitudes** de subvención deberán realizarse **electrónicamente** a través de la página web municipal, www.eibar.eus

El plazo de presentación de las solicitudes de obtención de subvenciones, dirigidas al órgano convocante y suscritas por el/la beneficiario/a o persona que lo represente, junto con la documentación aneja, **comenzará el 29 de septiembre y finalizará el 29 de octubre de 2025**. Si el último día fuese inhábil (sábado, domingo o festivo) se trasladará al primer día hábil siguiente.

Décimo: documentos e informaciones que deben acompañarse a la solicitud.

La tramitación de esta subvención requiere de diversos datos y documentos exigidos por la normativa reguladora aplicable que deben ser aportados por las personas interesadas.

No obstante, las personas interesadas tienen derecho a no aportar (art. 28 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas):

- Datos o documentos que estén en poder del Ayuntamiento de Eibar.
- Documentos que hayan sido elaborados por cualquier otra Administración.
- Documentos originales (salvo que, con carácter excepcional, la normativa reguladora aplicable establezca lo contrario).



- Interesdunak lehenago edozein administraziotan aurkeztutako datuak edo dokumentuak.

- Datos o documentos que hayan sido aportados anteriormente por la persona interesada en cualquier Administración.

Era berean, administrazio publikoek dokumentuak elektronikoki biltzeko betebeharra dute, beren sare korporatiboen bidez edo datu-bitartekaritzarako plataformei edo horretarako prestatutako beste sistema elektroniko batzuei kontsulta eginez (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155. artikulua).

Así mismo, las Administraciones Públicas tienen el deber de recabar los documentos electrónicamente a través de sus redes corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto (art. 155 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público).

Alde horretatik, eta dirulaguntza hau tramitatzeko, datu-bitartekaritzako plataformen bidez edo bitarteko telematikoen bidez Eibarko Udalak administrazio publiko eskudunei honako informazio hau kontsultatu ahal izango die, betiere interesdunak ez badio berariaz aurka egiten horiek erabiltzeari; kasu horretan, interesdunak dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

En este sentido, y para la tramitación de esta subvención, el Ayuntamiento de Eibar podrá consultar a través de plataformas de intermediación de datos o por medios telemáticos a las diferentes Administraciones Públicas competentes la siguiente información, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes:

- Legezko ordezkapenen kasuan, ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egotea.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Gipuzkoako, Bizkaiko eta/edo Arabako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

- En caso de representación legal, estar registrado/a en el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Estar al corriente de pago de obligaciones con la Seguridad Social.
- Estar al corriente de obligaciones tributarias con Hacienda Foral de Gipuzkoa, Bizkaia y/o Álava.

Kontsulta ezin bada egin datuen bitartekaritza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuen bidez, Eibarko Udalak, salbuespen gisa, dokumentazio hori aurkezteko eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, el Ayuntamiento de Eibar podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

Elektronikoki bete behar den formularioari honako dokumentazio hau erantsiko zaio:

Esta es la documentación a adjuntar al formulario que se cumplimentará electrónicamente:



a) Eskatera egiten duen elkartearen IFZ.

b) Elkartearen Estatutuak, eta elkartea Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan inskribatuta dagoela dioen egiaztagiria.

c) Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua, eta ordezkariaren egiaztapena, dokumentu bidez. Egiaztapena zuzenbidean bidezkoa den edozein bide erabiliz egin daiteke (notario-ahalordez, eskritura bidez...). Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkariaren erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazio hau aurkeztu beharko.

d) Banku-kontuaren titularra eskaera egiten duena dela frogatzen duen agiria; eskaera egin duen elkarteak eta agirikoak bat etorri behar dute. Honako dokumentu hauetatik edozeinek balio du: bankuko laburpena; aurrezki-libreta; banketxeak egindako ziurtagiria edo "Titular-kontua" izeneko orria (udal webgunean, www.eibar.eus, eskuragarri) behar bezala beteta banketxeak emandako zigiluarekin.

e) Jarduera-proiektua, dirulaguntzaren xede dena, udal webgunean (www.eibar.eus) eskura dagoen ereduaren arabera.

f) Dirulaguntzaren eskaeraren xede den jarduerarako beste dirulaguntzarik eskatu edo lortu bada, beste erakunde edo instituzio batzuetan jarduera berbererako egindako dirulaguntza eskabideen zerrenda, edo, hala balegoke, jasotako dirulaguntzena, bakoitzaren zenbatekoa eta helburua zehaztuta; horrela, ez da bikoiztasunik gertatuko dirulaguntzak ematean eta baliabideen esleipena modurik egokienean izatea ahalbidetuko da.

g) Zergak Gipuzkoa, Bizkaia edo Araba ez den beste lurralde batean ordaintzen badira, eskatzaileak zerga-betebeharrak

a) NIF de la asociación solicitante.

b) Estatutos de la asociación, junto con justificante de su inscripción en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco.

c) En caso de representación legal, DNI o documento equivalente de el/la representante legal y acreditación documental de la representación. La acreditación podrá hacerse por cualquier medio válido en derecho (poderes notariales, escrituras...). No será necesario presentar esta documentación en caso de que la representación esté registrada en el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

d) Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria de el/la solicitante, que tiene que coincidir con la identidad de la asociación solicitante. Será válido, cualquiera de los siguientes documentos: extracto bancario; libreta; certificado expedido por la entidad bancaria o el impreso "Titular-cuenta" (disponible en la página web municipal, www.eibar.eus) debidamente cumplimentado y sellado por la entidad bancaria.

e) Proyecto de la actividad objeto de subvención según modelo disponible en la web municipal (www.eibar.eus).

f) En caso de haber solicitado u obtenido otras subvenciones para la actividad objeto de subvención, relación de solicitudes de subvención formuladas ante otras instituciones, organismos, etc. o en su caso, de las que estuvieran otorgadas, detallando su cuantía y finalidad, al objeto de evitar duplicidades en la concesión de subvenciones y posibilitar la más adecuada asignación de los recursos.

g) En caso de tributar en Territorios diferentes a Gipuzkoa, Bizkaia o Álava, certificación acreditativa emitida por la



egunean dituela egiaztatzen duen agiria, horretan eskumena duen Ogasun Sailak luzatutakoa.

a), b) eta c) dokumentuen kasuan deklarazio bat egin daiteke dirulaguntzaren eskaeran, dokumentu horiek aldaketarik ez dutela jasan eta Udalak lehendik badituela adierazten.

Hamaikagarrena: akatsak zuzentzea eta aurre-ebaluazioa.

Espedientea bideratuko duen organoari dagokio, eskaerak, deialdi honetan eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak bete egiten dituela eta honen aurreko atalean aipatu den dokumentazioa ekarri egin dela egiaztatzea; organo horrek agindu dezake zuzenketa egitea DLOren 23.5 artikulua araberak. Hamar egun balioduneko gehieneko epe luzaezinean eskatutako dokumentazioa ekarri ez edo akatsak zuzentzeko agindua eman eta akatsak zuzentzen ez badituzte, eskabidean atzera egindakotzat hartuko dira.

Hamabigarrena: onartutako eskabideak baloratzeko irizpideak.

Proiektu bakoitzari eman dakioken dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango 3000 eurotik gorakoa.

Elkarte bakoitzari proiektu bat bakarrik lagunduko zaio diruz.

Proiektu bakoitzari, gehienez ere, 100 puntu eman dakizkioke, irizpide hauen arabera:

A) Aurkeztutako **programaren egitura eta kalitate teknikoa**, honako alderdi hauei dagokienez: dagoen beharrari buruzko alde aurreko analisia, jarritako helburuak, proposatutako metodologia, proposatutako jarduerak, aurrekontua, kronograma, espero den eragina (xede-populazioa) eta

Hacienda competente de que el/la solicitante se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias.

En el caso de los documentos a), b) y c) es posible realizar una declaración en la misma solicitud de subvención indicando que esos documentos ya se encuentran en poder del Ayuntamiento y que no han sufrido modificaciones.

Decimoprimer: subsanación de defectos y pre-evaluación.

La comprobación de que la solicitud reúne los requisitos exigidos en esta convocatoria y de que se aporta la documentación a que se refiere el párrafo anterior competirá al órgano instructor que podrá requerir la subsanación de conformidad con el artículo 23.5 de la LGS. A quienes no aportaran la documentación requerida o no subsanaran los defectos después de requeridos en el plazo máximo e improrrogable de diez días hábiles se les tendrá por desistidos/as de su solicitud.

Decimosegundo: criterios de valoración de las solicitudes admitidas.

El importe de la subvención que podrá concederse por cada proyecto no podrá superar los 3000 euros.

Sólo se subvencionará un proyecto por asociación.

Cada proyecto podrá ser valorado con un máximo de 100 puntos con arreglo a los siguientes criterios:

A) **La estructura y calidad técnica del programa** presentado en cuanto al análisis previo de la necesidad existente, formulación de objetivos, metodología propuesta, actividades propuestas, presupuesto, cronograma, impacto previsto (personas destinatarias) y



jarraipena eta ebaluazioa egiteko bideak **(gehienez, 20 puntu)**.

B) Aurkeztutako jardueretan eta/edo programetan **xede-populazioak duen parte-hartzea (gehienez, 10 puntu)**.

C) Askotariko bazterketa nozitzen duten eta gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden **emakumeen egoerak eta beharrak kontuan hartzea** programak edo jarduerak diseinatzeko eta aurrera eramateko orduan **(gehienez, 15 puntu)**.

D) **Emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartzeko eta ezabatzeko** eta indarkeria horren biktimei laguntzeko **programak eta jarduerak egitea (gehienez, 15 puntu)**.

E) **Beren kabuz moldatzeko gai ez direnak zaintzen dituzten emakumeen egoera ikusarazten eta kontzientzia pizten duten jarduerak** eta emakume horien egoera hobetzeko jarduerak edo programak burutzea **(gehienez, 10 puntu)**.

F) **Emakumeen elkarrekin elkarlanean jarduteko sareak sustatzea** eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiteko erakundeek sortutako organoetan parte hartzea sustatzea **(gehienez, 5 puntu)**.

G) **Ahalduntze pertsonalerako eta kolektiborako jarduerak egitea eta emakumeak hainbat esparrutan gaitzea**, hala nola kulturean, kirolean eta abarretan **(gehienez 10 puntu)**.

H) **Jardueretan eta haien zabalkundean erabiliko diren materialetan hizkera eta irudi sexistarik ez erabiltzea (gehienez, 10 puntu)**.

mecanismos de seguimiento y evaluación **(máximo 20 puntos)**.

B) **Participación de la población destinataria** en las actividades y/o programas presentados **(máximo 10 puntos)**.

C) La **consideración en el diseño y ejecución de los programas o actividades**, de las diferentes situaciones y necesidades de las mujeres que sufren discriminación múltiple y se encuentren en riesgo o situación de exclusión social **(máximo 15 puntos)**.

D) La **realización de programas y actividades para prevenir y eliminar la violencia contra las mujeres**, así como para apoyar a sus víctimas **(máximo 15 puntos)**.

E) La realización de **actividades de sensibilización que visibilicen la situación de las mujeres cuidadoras de personas dependientes**, y actividades o programas que intervengan para mejorar la situación en la que éstas se encuentran **(máximo 10 puntos)**.

F) El **fomento de redes de colaboración entre asociaciones de mujeres** y de la participación en los órganos creados por las diferentes instituciones para la promoción de la igualdad de mujeres y hombres **(máximo 5 puntos)**.

G) La realización de **actividades de empoderamiento personal y colectivo y capacitación de las mujeres** en distintos ámbitos tales como el cultural, deportivo, etc. **(máximo 10 puntos)**.

H) El **uso no sexista del lenguaje y de imágenes no sexistas** en los materiales que se empleen tanto para la realización de las actividades como en la difusión de éstas **(máximo 10 puntos)**.



I) Eibarko emakume migratuen parte-hartze soziopolitikoa eta bizi-kalitatea sustatzeko programak eta jarduerak egitea (gehienez 5 puntu).

Dirulaguntza eskuratzeko, gutxienez 50 puntu lortu beharko dira.

Balorazio Batzordeak puntuazioen arabera ordenatuko ditu eskaerak, eta bere txostenean, eskaera egin dutenen artean onuraduntzat proposatzen dituenek gain, dirulaguntza eman ez zaien eskatzaile guztien zerrenda jasoko du, tartean direla eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu ez dutenak eta, aukeratutakoekin konparatuta euren puntuazioa txikiagoa izan denez, deialdian adierazitako gehieneko zenbateko horretan sartzen ez direnak.

Dirulaguntzak behin eman ondoren aurrekontuan diruren bat geratu bada, baina diru hori ez bada heltzen dirulaguntza jasoko zukeen elkartearen jarduerak duen aurrekontu osoa betetzera, elkarte horri ordain dakioke geratu den diru apur hori, betiere jarduera bere proposamenean esandako eran egiteko konpromisoa hartzen badu.

Gutxieneko puntuazioa lortu baina dirulaguntza jaso ez duten horiek itxaron-zerrendan sartuko dira, eta hartara, emandako dirulaguntzaren bati uko eginez gero, itxaron-zerrenda horretan dagoenari emango zaio, baldin eta behar adina kreditu badago lehen ukatutako eskaera bati gutxienez erantzun ahal izateko.

Azkenean emango den dirulaguntzak "oroharreko prezio" izaera izango du, eta diruz lagundutako jarduera osorik aurrera eramateko beharrezkoa den finantzaketaren diferentzia hori onuradunaren kontu geratuko da.

I) Realizar programas y actividades para fomentar la participación socio-política y la calidad de vida de las mujeres migradas de Eibar (máximo 5 puntos).

Será necesario conseguir una puntuación mínima de 50 puntos para la obtención de la subvención.

La Comisión de Valoración ordenará las solicitudes en función de la puntuación obtenida e incluirá en su informe, además de los/as solicitantes a los que se propone como beneficiarios/as, una relación de solicitantes, a los/as que no se les concede subvención por no haber alcanzado la puntuación mínima requerida o por ser inferior su puntuación a la de los/as seleccionados/as y no tener cabida en la cuantía máxima convocada.

En el caso de que una vez adjudicadas las subvenciones quedara un resto del presupuesto que no cubriese la totalidad del presupuesto de la actividad de la Asociación a la que, de haber habido presupuesto, le hubiese correspondido la subvención, se podrá abonar a esa asociación ese resto, siempre que se comprometa a la realización de la actividad en los términos indicados en su propuesta.

Los/as solicitantes que habiendo obtenido la puntuación mínima no hayan obtenido subvención quedarán en lista de espera para los casos en que alguna de las subvenciones concedidas quede sin efecto por renuncia, siempre y cuando se haya liberado crédito suficiente para atender al menos una de las solicitudes denegadas.

La subvención finalmente concedida tendrá el carácter de "a tanto alzado", y se entenderá que queda de cuenta del beneficiario/a la diferencia de financiación necesaria para la total ejecución de la actividad subvencionada.



Hamahirugarrena: onuradunak dirulaguntzaren helburua bete duela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen justifikatzeko duen epea eta modua.

Jarduera egiteko edo funtsak erabiltzeko epea **2025eko abenduaren 31n amaituko da.**

Elkarte onuradunak dirulaguntzaren helburua bete duela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili den justifikatzeko duen epea **2026ko urtarrilaren 30ean amaituko da.**

Azken justifikazioa JUSTIFIKAZIO KONTUA modalitatearen bidez egingo da, eta **elektronikoki** aurkeztuko da udal webguneko **DOKUMENTAZIOA AURKEZTU** tramitearen bidez (www.eibar.eus).

Hauxe da elektronikoki aurkeztu behar den dokumentazioa, azken justifikazioa egiteko:

a) Jarduketa-txostena, behar bezala beteta; dirulaguntza jasotzeko ezarritako baldintzak bete egiten direla justifikatu behar da bertan, egindako jarduerak adierazi, lortutako emaitzak azaldu, izandako gastuak eta diru-sarrerak jaso... Udal webgunean dago orria (www.eibar.eus).

b) Diruz lagundutako jarduera horretan udalak emandako laguntzari eman zaion zabalkundea egiaztatzeko dokumentazioa (kartelak, eskupaperak, egunkarietako errekorreak, propaganda...).

c) Justifikatzeko balio duten fakturak edo horien ordezkioak, ordainagiriak, baita nominak, zergak zein Gizarte Segurantzako kuotak eta trafiko juridikoan edo administrazioan pareko froga balioa

Decimotercero: plazo y forma de justificación por parte de el/la beneficiario/a del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.

El plazo para la realización de la actividad o aplicación de los fondos finalizará **el 31 de diciembre de 2025.**

El plazo de justificación por parte de la asociación beneficiaria del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos **finalizará el 30 de enero de 2026.**

La forma de justificación final será mediante la modalidad de CUENTA JUSTIFICATIVA, y se presentará **electrónicamente** a través del trámite de **PRESENTACIÓN DE DOCUMENTACIÓN** de la página web municipal, www.eibar.eus.

Esta es la documentación a presentar electrónicamente para la justificación final:

a) Memoria de actuación debidamente cumplimentada justificando el cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, indicando las actividades realizadas, resultados obtenidos, relación de gastos e ingresos, etc. Modelo disponible en la web municipal, www.eibar.eus.

b) Documentación acreditativa (carteles, folletos, recortes prensa, propaganda...) de la difusión de la concesión de la subvención por parte del Ayuntamiento.

c) Documentos justificativos, facturas o documentos sustitutivos, recibos, incluso nóminas, tributos y cuotas a la Seguridad Social y demás documentos de valor probatorio equivalente con validez en el



duten eta egindako gastua erakusten duten gainerako agiriak ere ordainketa-egiaztagiekin batera, betiere modu korrelatiboan ordenatuta “Jarduketa-memoria” sartzen den GASTUEN ETA SARREREN ZERRENTA horretan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

d) Entitatearen pertsonal-gastuak justifikatzeko, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Zuzeneko langileen nominak, ordainketa-egiaztagiekin batera.
- Langileen Zerrenda Nominala.
- Erantzukizunpeko adierazpena, pertsona bakoitzaren dedikazio-ordu errealekin eta egindako zeregin nagusien zerrendarekin. Aurkeztutako justifikazioa ez baletor bat aurretiazko memorian jasotako hasierako aurreikuspenarekin, alde hori eragin duten arrazoiak justifikatu beharko dira.

e) Zergak Gipuzkoa, Bizkaia edo Araba ez den beste lurralde batean ordaintzen badira, eskatzaileak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria, horretan eskumena duen Ogasun Sailak luzatutakoa. Lantaldeen kasuan, partaide guztiena.

Hamalaugarrena: dirulaguntzaren zabalkundea eta dirulaguntza emateko baldintzak.

a) Dirulaguntzaren zabalkundea

Derrigorrean Eibarko Udalaren eta Berdintasun Unitatearen irudi instituzionala txertatu edo azaldu beharko da inprimitutako material, kartel, plaka, ikusizko bitarteko edo bitarteko elektronikoen guztietan eta komunikabideetan egiten diren aipamenetan.

b) Dirulaguntza emateko baldintzak:

tráfico jurídico o con eficacia administrativa acreditativos del gasto realizado junto con los justificantes de pago, ordenados correlativamente según el número de orden asignado en la RELACIÓN DE GASTOS E INGRESOS que se incluye en el “Informe de justificación”.

d) Para la justificación de los gastos de personal de la entidad ejecutora se deberán presentar:

- Las nóminas del personal directo, junto con los justificantes de pago.
- La Relación Nominal de Trabajadores/as.
- Una declaración responsable con las horas reales de dedicación de cada persona y la relación de las principales tareas realizadas. En caso de que la justificación presentada no corresponda con la previsión inicial recogida en la memoria previa, deberán justificarse las causas que hayan originado dicha diferencia.

e) En caso de tributar en Territorios diferentes a Gipuzkoa, Bizkaia o Álava, certificación acreditativa emitida por la Hacienda competente de que el/la solicitante se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias. En el caso de equipos, el de todos sus componentes.

Decimocuarto: difusión de la subvención y condiciones de otorgamiento.

a) Difusión de la subvención

Será obligatoria la inclusión de la imagen institucional del Ayuntamiento de Eibar y del Área de Igualdad en los distintos materiales impresos, carteles, placas conmemorativas, medios visuales o electrónicos, o bien en menciones realizadas en los medios de comunicación.

b) Condiciones de otorgamiento:



Iragarkiak, abisuak eta kaleratzen diren gainerako testu guztietan ez da hizkera sexistarik erabiliko, ezta estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere.

Zabalkundea edo propaganda, ahozkoa zein idatzizkoan ez da hizkera sexistarik erabiliko, ezta estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere.

Ekitaldi publikoetan antolatzaileek berba egiten dutenean –aurkezpenak, hasierako hitzak, agurrak, abisuak...–, ez da hizkera sexistarik erabiliko, ezta estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere.

Errotuluak, oharra, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean. Ezinezkoa denean, hizkuntza bietan egingo dira euskarari lehentasuna emanaz.

Iragarkiak, abisuak, eta argitaratu beharreko gainerako testuak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera emango dira.

Idatzizko zein ahozko publizitatea eta propaganda euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko da.

Jendaurreko ekitaldietan, antolatzaileen aurkezpenak, sarrera, agurrak, oharra... euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzte. Ume eta gaztetxoentzat diren emanaldiak euskaraz izango dira; baita euskal hiztunei zuzendutakoak ere.

Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar dira.

Erakunde eskatzaileek Euskara Zerbitzura jo ahal izango dute testuak itzultzeko zein zuzentzeko, betiere zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira.

En los anuncios, avisos y demás textos publicados no se utilizará ni lenguaje sexista ni imágenes que muestren estereotipos sexistas.

En la propaganda, tanto oral como escrita, no se utilizará ni lenguaje sexista ni imágenes que muestren estereotipos sexistas.

En los actos públicos las intervenciones de los/as organizadores/as (presentaciones, introducción, saludos, avisos...) no se utilizará ni lenguaje sexista ni imágenes que muestren estereotipos sexistas.

Los rótulos, notas, señales y demás comunicaciones generales se realizarán en euskera cuando los mensajes sean conocidos o comprensibles. Cuando no sea posible, se realizarán en ambas lenguas dando prioridad al euskera.

Los anuncios, avisos y demás textos a publicar se redactarán y darán a conocer en euskera o en euskera y castellano.

La publicidad y propaganda escrita y oral deberá realizarse en euskera o en euskera y castellano.

En los actos públicos, los/as organizadores/as realizarán presentaciones, entradas, saludos, notas en euskera o en euskera y castellano. Las actuaciones para niños/s y jóvenes serán en euskera, así como las dirigidas a vascoparlantes.

Hay que garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

Las entidades solicitantes podrán dirigirse al Servicio de Euskera tanto para traducir como para corregir los textos, siempre que se cumplan las condiciones y características del servicio.



Hamabosgarrena: Bateragarritasuna edo bateragarritasun eza helburu berbererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein Administrazioetik edo erakunde publikoetatik zein pribatuetatik etorri, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorri.

Dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu berbererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatuetatik, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorritakoak.

Hamaseigarrena: dirulaguntzaren ordainketa.

Dirulaguntzaren ordainketa jardura edo ekitaldia burutu aurretik egingo da.

Hamazazpigarrena: ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dion adieraztea.

Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari; horren kontra, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hilabete dago berrazterketa-errekurtsoa aurkezteko ebazpena eman zuen organoan, edo, bestela, bi hilabeteko epearen barruan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioako Auzien Donostiako Epaitegian, Atotxako Justizia Auzitegian (Teresa Kalkutakoaren plaza 1).

Hamazortzigarrena: dirulaguntza jaso duenaren ekimenez diru-itzulketak egiteko baliabideak.

Decimoquinto: Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

Estas subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o de la Unión Europea o de organismos internacionales.

Decimosexto: pago de la subvención.

El pago de la subvención se realizará anticipadamente a la ejecución de la actividad.

Decimoséptimo: indicación de si la resolución pone fin a la vía administrativa.

La resolución pone fin a la vía administrativa pudiendo interponerse contra la misma recurso de reposición en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la recepción de la notificación de la resolución ante el órgano que dictó la resolución, o interponer recurso contencioso administrativo en el plazo de 2 meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia, con sede en el Palacio de Justicia de Atotxa, sito en la Plaza Teresa de Calcuta nº 1.

Decimooctavo: medios disponibles para devoluciones a iniciativa de el/la perceptor/a.



Edozein delarik ere arrazoa, dirulaguntza osoa edo dirulaguntzaren zati bat bere borondatez itzuli nahi duen onuradunak Udal Diruzaintzaren bulegoetan egingo du diru-itzulketa, ordainketa-gutun bidez. Agiri horretan, diru-sarrera egiten duenaren datuak eta ordainketa egiteko eman zen ebazpena identifikatzen utziko duten datuak jasoko dira. Ordainketa-gutun hori dirulaguntza eman zuen organoari helaraziko zaio, justifikazio-epea amaitu baino lehen.

Hemeretzigarrena: izaera pertsonaleko datuen babesa.

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

Datu pertsonalen tratamenduak pertsonen, taldeen, elkarten eta erakundeen datuak, informazioa eta agiriak erregistratzea, Gizartekintzako zerbitzuak (ikastaroak, tailerrak...) eta programak (dirulaguntzak, harrera-programa, ikastetxeetarako prebentzioko eta sexu-afektibitateko programak) kudeatzea du xede, aintzat hartuta interesatuak emandako baimena eta tratamendu-arduradunari esleitutako ahalordeak, zeinak jasota dauden hurrenez hurren datu pertsonalak eta haien zirkulazio librea dela-eta pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudiaren 6.1 artikulua a) eta e) letretan.

Tratamenduaren arduraduna: Eibarko Udaleko Gizartekintza Saila, Berdintasun Zerbitzua.

Telefonoa: 943 708440.

Emaila: gizartekintza@eibar.eus

El/la beneficiario/a que voluntariamente decida proceder a la devolución total o parcial de la subvención, cualquiera que sea la causa, deberá hacerlo en las oficinas de la Tesorería municipal mediante la correspondiente carta de pago en la que se harán constar en todo caso los datos del perceptor/a que realiza el ingreso y los que permitan identificar la resolución de concesión que dio lugar al pago. Dicha carta de pago se hará llegar al órgano concedente antes de la finalización del plazo de justificación.

Decimonoveno: protección de datos de carácter personal.

El tratamiento de la información tendrá en cuenta lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, y demás disposiciones que resulten de aplicación.

Los datos personales serán tratados con la finalidad de registrar datos, información y documentos de personas, colectivos, asociaciones y entidades para gestionar los diferentes servicios (cursos, talleres...) y programas (subvenciones, programa de acogida, programas de prevención y afectivo-sexual en centros escolares...) de Servicios Sociales, en base al consentimiento otorgado por la persona interesada y al ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento contemplados, respectivamente, en las letras a) y e) del artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de sus datos personales y a la libre circulación de estos datos.

Responsable del tratamiento: Área de Servicios Sociales, Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Eibar.

Tfno. 943 708440.

Email: gizartekintza@eibar.eus



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

Eskubideak: Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, datuak eramateko, datuen aurka egiteko edo datuen tratamenduari mugak jartzeko eskubideak daude; horretarako idazki bat egin behar zaio Eibarko Udaleko tratamenduaren arduradunari, honako helbide honetara: Untzaga plaza 1, 20.600 Eibar (Gipuzkoa). Bidali behar diren datuak hauek dira: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Derechos: Le recordamos que existen los derechos de acceso, rectificación, supresión, portabilidad, oposición o limitación al tratamiento de sus datos, dirigiendo una comunicación escrita al Responsable de tratamiento en el Ayuntamiento de Eibar a la siguiente dirección: Untzaga plaza 1 – 20.600 Eibar (Gipuzkoa), con los siguientes datos: nombre y apellidos, domicilio a efectos de notificaciones, petición en que se concreta la solicitud, fecha, firma de la persona interesada y nombre del fichero.